

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Espainiako Itzulia Nafarroan hasi da, lehen aldiz 67 ediziotan

Ekimen honekin Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen irudia ezagutzera eman nahi du

Sábado, 18 de agosto de 2012


2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan hasi da gaur arratsaldean, lehen aldiz 67 ediziotan. Nafarroako Gobernuak, bere lehen etapan antolaketan laguntzeaz gain, aukera aprobetxatu nahi du Foru Komunitatearen irudia ezagutzera emateko, bai Espainian bai eta Itzulia jarraitu ahal izango den 150 herrialde baino gehiagotan ere.

Itzuliaren lehen etapa, 16,5 kilometroko taldekako erlojupekoa, 19etan hasi da Iruñako Gaztelu Plazan eta hiri hontako zezen plazan amaituko da. Aurretik, Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak eta Miguel Induráin txirrindulari ohiak Itzuliari hasiera ofiziala eman dion zinta mozketa egin dute. Ekitaldian izan dira, halaber, Jesús Pejenaute Gizarte Politiken kontseilaria, Enrique Maya Iruñako alkatea eta Javier Guillén Itzuliko zuzendaria.



Barcina Lehendakaria, erdian, Pejenaute, Guillén, Induráin eta Mayaz inguratuta, zinta mozketan.

Antolatzaileek zehaztutako ibilbidearen arabera, txirrindulariak Gaztelu Plazatik irten eta Pío XII etorbidea zeharkatuko dute Andrés-en Bentaraino. Handik bi unibertsitateetarantz joko dute eta berriro ere hirian sartuko dira Tajonar eta Monjardín kaleetatik. Ondoren, Belosoko aldatatik Burlatarantz abiatuko dira eta Iruñako Txantrea eta Errotxapea auzoak zeharkatuko dituzte. Azkenik, entzerruaren ibilbidea egingo dute Iruñako zezen plazaraino.




Txirrindulari talde bat Nafarroako Jauregiaren aurrean.

Gogoratzekoa da Iruñan hasiera izan zuen Espainiako Itzuliko azken etapa 1994ko maiatzaren 8koa dela. Urte hartako 14. jardunaldia izan zen,

Nafarroako hiriburua eta Cruz de la Demanda gainaren (Valdezcaray) artean lehiatutakoa. Aurreko egunean Itzulia Iruñara iritsi zen, 13. etapan.

Bestalde, igandean, abuztuak 19, Espainiako Itzuliaren bigarren etapa burutuko da Iruña eta Viana artean. 181,4 kilometroko ibilbidea egingo dute txirrindulariek.

Galería de fotos



Itzuliaren lehen etapako ibilbidea.